

## Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Lehenik eta behin, gure enpresa jendearen maskotetaz ardurutzen den bezala, guk konpontzen dugun arazoa inoren ardurapean ez dauden maskotak zaintzea edo beraietaz arduratzea da. Beste aldetik, guk animalien abandonoa ekiditzen laguntzen dugu, zeren eta, animaliak abandonatzeko arrazoi nagusietako bat hura zaintzeko denbora falta izaten da.



## Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Euskal Herri inguruan animalia zaintzaile enpresa bat dago, hain zuzen, Lemoan eta, baina berarengandik bereizten gaituena gure animaliak zaintzeko ditugu opzio edo aukera desberdinak, gure prezio deskontuak, gure kokapena eta gure kalitatezko zaintza zerbitzuak dira.

- Lehenik, gure prezioak zaintza denboraren arabera klazifikatuko dira, hau da, zenbat eta denbora gehiago zaindu bezeroen maskota, gero eta diru kantitate handiagoa kobratuko genuke. Orduan bezeroak eguneko prezioak jakinik berak nahi duen denbora beste utzi ahal du bere maskota gure karguan.

Beste aldetik urte osoan zehar aktiboki lan egingo dugu gehienbat bezeroak oporretan joaterakoan animaliak gurekin uzteko aukera ahal izateko.

- Guk proportzionatzen ditugun aukeren barruan hurrengoak aurkitzen ditugu: lehenengoa, bezeroak bere maskota gure enpresara behin ekarriz, etortzen den hurrengorako deskontu bat proportzionatuko diogu eta bigarrena animalia gurekin dagoen bitartean asteroko deskontuak egingo ditugu, hau da, animalia aste bat uste badu gure kargu deskontu bat izango du. Azkenik, animalia zaintzaren arloan formatutako langileak eta albaitariak kontratatuko ditugu ahal dugun zerbitzu honena eskainiz.